

# Semaforo berdea



**JOXERRA AIZPURUA**  
INDUSTRIA INGENIARIA

Orain hamar urte pasa, Fukushima lehertzearekin batera, ia mundu osoan, baina batez ere Europan, energia iturrien inguruko eztabaida areagotu zen. Alemaniak hartu zuen epe ertainera nuklearrak ordezkatzeko lidergoa; Espainiak eta Frantziak ere, aho txikiarekin bederen, bide beretik jotzeko asmoa azaldu zuten. Baina berehala sortu zen hondakin nuklearrekin egin beharrekoaren inguruko eztabaida eta gai horren inguruko korapiloak eztabaida nuklearra lausotu zuen apurka, eta azkenerako baita desagerrarazi ere.

Pandemia garaian ez da ia eztabaidarik izan, gizartea lokartuta egon delako eta energia beharrak aurreko urteetakoak baino txikiagoak ere izan direlako; baina pandemiaren amaiera dirudien garai honetan eztabaida bortizki piztu da, izan ere, etxetik ateratzearekin batera energia beharrak esponontzialki hazten ari baitira.

Orain gutxi, Frantziako presidentek frantziar industria laguntzeko 30 mila miloi euroko laguntzak iragarri zituen. Dirutza horren zati bat industria nuklear txikiak sortzeko izango omen da. Transizio energetikoa egiteko urteak behar

Macronek saldu digun nuklear txikien bideak aurrera egin dezake eta hurrengo hamarkadetan zentral nuklearrez josita topa dezakegu Frantzia, Europa eta mundua

izango direnez, hamarkadak iraungo dituen transizio horri laguntzeko tresna ezin hobekak izan daitezkeela zioen Macronek. Zentral nuklear klasikoaren potentziaren laurdena izango luketen zentralak perretxikoak balira bezala eraikiko dira era seguruan, denbora laburrean, eta gainera erabilera anitzekoak izan daitezkeela ziurtatu dute teknologia horren defendatzaileek. Txina eta AEB abiatu dira bide horretan, eta Europan iritzi kontrajarriak daude: Frantzia eta Herbehereak, esate baterako, horren al-

dekoak dira, eta Alemaniak ezezkotan jarraitzen du.

Azken hamar urteotan energia berriztagarrien ezarpena ia bikoiztu egin bada ere, oraindik oso pisu txikia dauka, egungo energia kontsumoaren %10aren azpitik. Munduan gero eta adostasun zabalagoa dago berotegi efektuari aurre egin beharri dagokionez, karbono dioxidoaren eta metanoaren emisioak gutxitu behar diren aurrean, baina gizarteak dituen energia beharrak urterotan handitzen direla eta energia berriztagarrien ezarpenak gorabehera handiak dituela kontuan hartuz gero, Macronek saldu digun nuklear txikien bideak aurrera egin dezake eta hurrengo hamarkadetan zentral nuklearrez josita topa dezakegu Frantzia, Europa eta mundua.

Europak onartu berri du nuklearrei “berde” izena jartzea, eta gauza bera gertatu da Alemaniak defendatzen duen gasarekin. Energia mota horiei semaforo berdea piztuko zaie Europa osoan, eta Euskal Herrian ere bai. 70eko hamarkadan Lemoizko zentralaren inguruan bultzatutako “Nuklearrik? Ez, eskerrik asko” esloganak jarraipenik izango al du? ●

ANTAXETA  
**IRRATIA**  
90.5 / 89.7 FM

**20** URTE

*uhinak euskaraz eta libreki astintzen*